

Euskadi osoko eta kirol-modalitate guztietako bosteheun erakundek baino gehiagok osatutako Bultza Kirola Euskadi Plataformak, milaka kirolari ordezkatzen dituenak, Euskadiko kirolaren eta, batez ere, eskola-kirolaren egungo egoerari buruz gure kezka adierazi nahi dugu.

Kirolaren sektorearekin zerikusia duten profesionalen azterlan guztiek, gomendioek eta osasun-azterketek gure aldarrikapena bermatzen dute.

Kirola, COVID-aren aurkako protokoloa jarraituz praktikan jarritakoa, eremu honetan hautemandako kutsadurei eta agerraldiei dagokionez **ia arriskurik ez duela** frogatu da. Gainera, azterlan horiek guztiek kirolak pandemiaren aurka duen borroka-eginkizuna azpimarratzen dute: positiboen bilaketa kontrolatuz eta erraztuz, hain osasungarriak ez diren eta arriskutsuagoak diren ohiturak murriztuz, kasu positiboetan COVID gaixotasuna gainditzen lagunduz eta ospitaleratzeak gutxituz. Kirola OSASUNA da.

Hori guztiari kirolak garapen pertsonalean dituen onurak gehitzen dizkiogu, jada aurretik ezagutzen genituenak, gure etorkizuna izango diren gazteen hezkuntza emozionalaren eta balio-hezkuntzaren adar oso garrantzitsu bat izateaz gain.

Gure ustez, kirola **funtssezko jardueratzat** hartu behar da, hezkuntza arautuaren parte den jarduera. Lehenetsuna eman zaion hezkuntza arautuan hilabete hauetako esperientziarekin ikastetxeetan eta institutuuetan ingurune seguruak sor daitezkeela frogatu da eta hortaz, gure kirol-modalitateetan ere sor daitezke.

Egungo araua **negatiboa** eta **ez beharrezkotzat** jotzen dugu. Negatiboa, martxoaz geroztik kirola erregulartasunez egin ezin izan duten txikientzat eta ez beharrezkoa, lehen azaldu dugun bezala, debekatuta ez dauden eta kirola bezain funtssezkoak ez diren beste jarduera batzuekin alderatuz arriskua askoz ere txikiagoa delako.

Horregatik guztiagatik, eta eskolako kirol-jarduera erabat debekatzeko arrazoiketarik eta justifikaziorik ez dagoelako, gure kirolak praktikatzeko modu segurua aurkitu dugunez, agintari eskudunei kirola **funtssezko jardueratzat har dezatela exijitzen diegu**, eta, horretarako, egungo **arauak alda ditzatela eskatzen diegu**, eskola-adinean ere kirola egin ahal izateko.

KIROLA BAI, KIROLA FUNTSEZKOA DA